

Munduko hiriak

Hiri guztiak bereziak dira. Batzuk parke asko dituztelako nabarmentzen dira, Londres, adibidez.

Beste batzuk, kaleak etxe orratzez beteta dituztelako; esaterako, New York. Eta beste zenbait, berriz, hiria eraikitzeke aukeratu zuten lekuagatik; esate baterako, Dubai, basamortuan eraiki baitzuten.



Lotu. Zein...?

New York

Londresek

Dubai

basamortuan eraiki zuten.

etxe orratzez beteta dago.

parke asko ditu.

New York, etxe orratzen hiria



Etxe orratza da gaur egungo hirietako eraikin adierazgarriena. Munduan, **New York** (Estatu Batuak) da etxe orratz gehien dituzten hirietako bat. Hiritik apur bat urrunduz gero, skyline esaten diotena ikus daiteke; hau da, etxe orratz guztiek osatzen duten silueta.

Aukeratu. Zeri deitzen zaio etxe orratz?

Solairu askoko eraikinari.

Solairu bakarra duen etxeari.

Nola deitzen zaio etxe orratz guztiek osaten duten siluetari?

Eraikin

New York

Skyline

Non dago New York?

Europar

Estatu Batuetan

Afrikan

Autobus espresa, Curitibako asmakuntza

Curitiba (Brasil) alkate Jaime Lernerrek hiriko biztanleek autoak gutxiago erabiltzea nahi zuen. Orduan, autobusentzako soilik diren bide batzuk sortu zituen. Autobusak bidaiariak sartzeko eta irteteko plataforma batzuetan baino ez dira gelditzen. Hala, garraio publikoa bizkorragoa da eta jende gehiagok erabiltzen du.



Non erabiltzen dira autobus horiek?

Bilbo hirian

Madril hirian

Curitiba hirian

Zein asmoarekin jarri zituzten autobus hauek martxan?

Biztanleek autoak gutxiago erabiltzeko asmoarekin.

Biztanleak etxeetatik gutxiago ateratzeko asmoarekin.

Zer erabili behar dute bidaiariak sartzeko eta irteteko?

Plataforma bat.

Eskailerak.

Aulki bat.

Tokio, munduko hiririk handiena



Tokio (Japonia) munduko hiririk zabalena da. Eguneko 24 orduetan, Tokioko kaleetan bizia dago edonon. Bizia... eta argia! Izan ere, kartel argidun eta pantaila erraldoi ugari daude eraikinetako fatxadetan.

Zein da munduko hiririk zabalena?

New York

Curitiba

Tokio